

## Ramiro Gonzálezek eskerrak eman dizkie landa eremuetako elkarteetan lanean jardun duten emakumeei, Araba aberasten lagundu baitute

Arabako Foru Aldundiak Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako ekitaldian, kuadrilletan erreferente izan diren adineko zazpi emakumeri egin diete omenaldia

**Gasteiz, 2020ko martxoaren 6a.** *“Landa eremuko elkarteetako emakumeei eta haiek egindako lanari zor dio Arabak bere handitasuna eta aberastasuna neurri handian”.* Hori esan du Ramiro González Arabako diputatu nagusiak, Emakumeen Nazioarteko Egunaren aurretik Arabako Foru Aldundiak gaur arratsaldean egin duen erakunde ekitaldian, zeinean omenaldia egin baitiete urtetan elkarteetan lanean aritu diren Arabako landa eremuko emakumeei.

Ekitaldiak erakundeen, alderdi politikoen, emakume taldeen eta emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko taldeen ordezkariak bildu ditu Artium Museoan, Arabako Foru Aldundiak martxoaren 8a oroitarazteko abian jarri dituen ekimenen barruan. Aurten, foru erakundeak herrien etorkizunaren alde lan egin duten landa eremuetako adineko emakumeen lana aitortu nahi izan du, ‘Toda un vida de sabiduría-Bizi guztiko jakinduria’ izenburua duen kanpainaren barruan antolatu diren hainbat ekitaldiren bidez.

Hori dela eta, gaur arratsaldean egindako ekitaldian, egindako lana aitortu die Arabako kuadrilletako zazpi emakumeri, hainbat elkartetan egin duten ibilbide luzea dela eta. Hauek izan dira emakume omenduak: Edurne Ibarrola eta Leonor Sastre, Gorbeialdeko eta Aiaraldeko kuadrilletakoak, Arabako Emakumeen Sareko kideak; Antonia Martínez, Arabako Lautadako, Sallurtegi elkarteko kidea; Carmen Dovale, Añanako, Lantartea eta Gure Soroa elkarteetako kidea; Marian Urrechu, Arabako Errioxakoa, El Pilagar elkarteko kidea; Agustina Echagoyen, Antoñanako Aguaké elkarteko kidea, Kanpezu-Arabako Mendialdea kuadrillakoa, eta Judith González de Matauco, Gasteizkoa, Gure Soroa elkarteko kidea.

Diputatu nagusiak emakume horiek eta beste batzuek bizitza osoan zehar egindako lana nabarmendu nahi izan du; izan ere, ‘bere egitekoak’ izen okerra



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

duen eguneroko lan hori isildua izan da eta isildu egiten da oraindik ere; ez da aitortu. Emakumeek derrigorrez egin behar izan dute lan hori, egin beharra zegoelako, eta bizi osoan zehar egin duten lan horri esker, jakinduria ukaezina eskuratu dute. Ramiro Gonzálezek ustez, “*jakinduria*” hori aberasgarria eta eraldatzailea da, eta landa eremuko emakumeak ditugu horren adibiderik argiena.

Diputatu nagusiak gogorarazi du, gainera, elkarteen munduan sartzea ia ezinezkoa zenean eman zutela pauso hori: “*Haien lanaren bidez, oparotasunaren eta esperantzaren hazia erein zuten, eta horri esker, landa eremuko emakumeen ilusioak egia bihurtu ahal izan ziren, eta gure herriek etorkizun oparoagoa izateko bidea jorratu zitekeela sinetsi genuen*”.

“*Gure lurraldea askotarikoa da, baita gure kuadrillak ere, baina bat egiten dugu hainbat gauzatan: ondo egindako lanaren kultura, ahalegina, konpromisoa, identitatea eta besteekiko inplikazioa*”, nabarmendu du diputatu nagusiak, eta gogorarazi du landa eremuetako emakumeek eta elkarteek egindako lanari esker munduko gizarte aurreratuenetako bat izatera iritsi garela, berdintasunaren alorrean ere aurrera egin nahi duen gizarte bat, eskualde bat.

Amaitzeko, Ramiro Gonzálezek adierazi du Arabako Foru Aldundiak asmo sendoa duela gizarte eraldatzeko, bidezkoagoa eta aurreratuagoa izan dadin, eta, batez ere, emakume eta gizonen arteko berdintasun handiagoa lortzeko.